



Alderdik Karlistaren agerraldia Iruñean, atzo. INIGO URIZ / FOKU

# Montejurrako gertakaria Madrildik sustatu zutela azaldu dute zenbait agiririk

Alderdi Karlistaren arabera, Espainiako Gobernuak eta Manuel Fraga Iribarnekin 1976an Montejurran gertatutakoa bultzatzen lagundu zuten

## Isabel Jaurena

Montejurrako magalean (Nafarroa) 1976. urtean izaniko istiluetan bi lagun hil zituzten. Karlos Hugo Borboikoaren aldekoak biak. Orain arte zabalduak bertso ofizialak dio «anaien arteko liskarra» izan zela heriotza horien eragile. Joan den asteburuan Nafarroako prentsan zabalduak informazioaren, eta Alderdik Karlistak atzo agerraldi batean azaldu zuenaren arabera, ordea, Espainiatik antolatutako ekintza bat izan zen, eta Manuel Fraga Iribarne orduko Agintaritzako ministroak esku hartu zuen. Helburua Alderdik Karlistaren ildo progresista zein demokratikoa akitztea zen, haien arabera.

Jose Luis Ruiz de Gordoia Nafarroako gobernadore zibila Fragari bidalitako dokumentu bateko informazioa da historiaren bertso ofiziala bertan behera uzten duena. Bertan, ideia eta aurreikuspen zehatz batzuk daude, eta azaltzen da nola utzi bertan behera Alderdik Karlistaren urteroko ekitaldia.

1976ko urtarrilean hasi ziren gutzia prestatzen. Hilabete horretan Ruiz de Gordoia egindako txosten batean, zenbait agintari karlistarengan «eragiteko» aukera aipatzen da. Urte bereko api-

rilean, Espainiako Seguratasun zuzendari nagusiak gutun bat bidali zion Ruiz de Gordoari, hau erranez: «Montejurrako kontzentrazioaz arduratzeko tenorea iritsi da». Gehitu zuen «komenigarria» izan litzatekeela istilu bat egotea karlista progresisten eta Miguel Fagoaga, Ramon Merino, Pepe Arturo eta Sixto Henrike Borboikoak gidatutako karlista tradizionalen artean.

Sixto Henrike Borboiko eta Pepe Arturo Espainiako erregearen aldeko gisa lerratu ziren Nafarroako gobernadorearekin egindako bilera batean. Hala, 1976ko maiatzaren 9an alde tradizionala eta eskuineko bertzeko zenbait eragile ekitaldia bereganatzen saiatu

ziren. Karlos Hugo Borboikoaren aldekoek, baina, kontra egin zieten. Ondorioz, bi lagun hil ziren eta 30 inguru zauritu. Fragak hasieran bere gain hartu zuen gertatutakoa, baina azkenean «anaien arteko liskarra» izan zela erran zuten.

## EH Bilduren eskaera

EH Bilduk jakinarazi du Felix Bolaños Espainiako Presidentetza ministroaren agerraldia galdegina duela Kongresuan, Montejurrako hilketen atzean «estatuko aparatua zeudela frogatu ostean». Madrilloko gobernuak ez du eskaera horren inguruan hitz egin, eta ikusteko dago Bolañosek azalpenak emango dituen ala ez.

**ola**  
SAGARDOTEGIA

- Antzinako burdinola baten oinean kokatutako sagardotegia.
- Bertako sagarrekin egindako sagardoa.
- Asteartetik larunbatera, afariak.
- Ostiralean, larunbatean eta igandeetan, bazkariak.
- Sagardo ekologikoa.

Meaka auzoa, 102 • IRUN • 943-62 31 30 • [www.olasagardotegia.eus](http://www.olasagardotegia.eus)

## Borja Senper PPko eleduna izanen da maiatzeko hauteskunde kanpaina

**MADRIL** • Duela hiru urte utzi zituen kargu politikoak Borja Senperrek, Gipuzkoako PPko presidentea, Donostiako Udaleko zinegotzia eta Eusko Legebiltzarreko PPren eleduna zela. Atzo, baina, adierazi zuen Alberto Nuñez Feijooen PPko eledun izanen dela datozen hauteskundeetan. Feijoo buru duen «zentraltasun eta moderazio proiektua» bultzatzea izanen du helburu gisa. Politika utzi zuenean, Voxenganako PPren hurbiltasuna ez zuela gustuko aditzera eman zuen, baina, orain, PPren aliantza estrategia ez du oztupo izan itzultzeko.

## Jose Ignacio Iruretagoiena PPko zinegotzia oroitu dute Zarautzen

**ZARAUTZ** • 1998ko urtarrilaren 9an hil zuen ETAK Jose Ignacio Iruretagoiena PPko zinegotzia, 35 urte zituela. Ibilgailuan lehergailu bat jarrizioten, etxetik lanera zihoan batean. PPK haren aldeko omenaldi ekitaldia egin diote, Zarautzen. Carlos Iturza Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako PPko buruak gidatu dute, eta lore eskaintza egin diote biktimen monumentuan. Iturzaiek esan du «PP fisikoki eta politikoki desagerrarazi nahi» zuela ETAK atentatuen bidez, eta Iruretagoiena «askatasunaren martiri bat» dela.



urtarrilak  
12-13

Bilbao Orkestra Sinfonikoa



## Edertasuna tempus bellian

### A. Katchaturian:

*Biolin eta orkestrarako kontzertua re minorrean*

### R. Vaughan Williams:

*5. sinfonia Re Maiorrean*

Sergey Khachatryan, biolina

Tarmo Peltokoski, zuzendaria

Palacio Euskalduna Jauregia

osteguna | jueves 19:30 h  
ostirala | viernes 19:30 h

Desde 14,00 €tik aurrera  
Gaztea (<30): desde 5,25 €tik aurrera

Taquilla Euskaldunako lehiatila  
[www.bilbaorkestra.eus](http://www.bilbaorkestra.eus)